

BELARTZA: Donostiako Udalaren aurkako auzia.

Haritzalde Naturzaleen Elkartek, Belartza-Goikoaren landazabalean Belartza-Harrobian Mercadonako obra egitetik ateratako material pilaketa baimentzeagatik, Donostiako Udalari administrazioaren aurkako auzi-elegitea ezarri dio Epaitegian. Errekurtsoa tramitean onartua izan da dagoeneko eta, Auzitegian inoiz bukatu beharko ez zukeena, hilabete batzuren epean gure aldeko ebazpena egon dadin espero dugu.

Izan ere, hainbatetan salatu dugun moduan, obren eremutik kanpo, ingurune naturalean, harri isurketa erraldoi hori baimentzerik ez zegoelako ustean baikaude. Haritzalderen izenean aurkeztu den auzi-elegitea Naturkonek biltzen dituen Gipuzkoako mugimendu ekologista eta naturzaleak eta Añorgako bizilagunak ordezkatzeko egin da, Belartza-2 poligonoaren aurka batera ari garen guztion izenean alegia.

Ez genuen puntu honetara ailegatu nahi, baina Udal Erregistroan egindako salaketa askoren bide amaiera dugu hau, Belartza- Canteran egiten ari den Mercadona eremuan jatorria duen 120.000m³ tona harri-isurketa ilegalarekin hasi zena. Material horiek ondoko landazabalan, ingurune naturalean, isuri ziren exekuzioan ez dagoen lur eremu batean (Belartza Goikoa), ingurumenaren gaineko kalte nabarmenak eraginez; honen alorrean egindako salaketa publikoak bide penalean dihardute, ingurumenaren aurkako balizko delitua ikertzen ari delarik, instrukzio-fasean egonik .

GERTAKARIAK. Udalaren aurrean hilabete batez baimenik gabeko arroka isurketa salatzen aritu ostean, Donostiako Udalak jarduera ilegal horiek gelditzeko eten-agindurik eman gabe, maiatzaren 16ean premiazko obra-baimena luzatu zien, guk ilegaltzat jotzen duguna, Udaletxean bertan ezarritako errekurtsoan azaldu genuenez. Akatsa onartzetik urruti eta gure idatzia baztertuta, babes legal bila Auzitegira jotzea baino ez zaigu gelditu, horrek dakarkigun gastuarekin.

Uda ostean, obraren beste fase batean, sustatzaileek hilabete oso batez materiala isurtzen jarraitu zuten Udalak baimen berririk eman ez zielarik, berak aurrez ezarritako baldintzak hautsiz. Eta oraingoan ere Udalak ez zuen obra eten, eta ez die isunik ezarri, ezta bestelazko neurririk hartu.

Berriro ere hainbeste nabaritasun aurrean babesgabe sentitzen gara. Badirudi Udalak interes ekonomiko pribatuak lehenesten dituela interes orokorraren gaitetik, kasu honetan ingurumenaren babesaren gaitetik, Legea nahi eran erabiliz (ala saihestuz).

Horregatik guztiagatik, Mercadonako sustatzaileek eragindako jarduera ilegalen ondorioz sorturiko kalteak, Donostiako Udalaren bitartez legeztatzen saiatu direnak, lehengoratzeari exijitzen dugu, gune naturalean isuritako azken arrokaraino bertatik ateraz eta landazabala berreskuratuz.

Donostia, 2016ko azaroaren 22an.

Harremanetarako: 609 420 438 (Haritzalde)

naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org